



'HITZA' ETA 'BERRIA' ARO BERRI BATEN AURREAN

Azaroaren 5etik aurrera aldaketak etorriko dira paperean eta interneten; ostiraletan 'Gipuzkoako Hitza' banatuko da 6



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2010-10-23

VIII. URTEA 2.107. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



AROTEGIETA 4

- Lau etxebizitza.
- Tasatuak.
- Denentzat.
- Zozketa 2011ko urtarrilean.



PLAZA BERRIA 2

- 16 etxebizitza.
- Tasatuak.
- Denentzat.
- Zozketa 2011ko otsailean.



BERAZUBI

- 39 etxebizitza.
- Tasatuak.
- Denentzat.
- Zozketa 2011ko irailean.



ALONDEGIA

- 21 etxebizitza.
- Kontzesioan 15 eta alokairuan sei.
- Pertsona helduentzat.
- Bukaera data, 2011ko otsailean.



IGARONDO

- 24 etxebizitza.
- Alokairua, babes ofizialean.
- Pertsona helduentzat.
- Deialdia, 2011ko lehen hiruhilekoan.



EUSKAL HERRIA PLAZA

- 26 etxebizitza.
- Alokairua.
- Gazteentzat.
- Hasiera, 2011ko maiatzean.
- Bukaera data, 2012ko urria.



Tolosako Kultur Etxean aurkitzen da erakusketa. I.TERRADILLOS

«Batzuk aurkituta, nolabait besteak ere aurkitzen dira»

TOLOSA 'Hildakoak hilobitik ateraz, duintasuna berreskuratuz' erakusketa zabaldu dute 2

130 ETXEBIZITZA BANATUKO DITU UDALAK HIRU URTETAN

TOLOSA Hauetatik 74 tasatuak izango dira eta 56 alokairuan jarriko dituzte; 2010 Planaren baitan kokatu dute egitasmoa 3

Belauntzan Merkatu Txikia egongo da bihar

EKONOMIA Herritarrek jarriko dituzte postuak; 10:30etik 14:00etara egongo da zabalik 7



Gerra Zibileko biktimek bizitako zorigaitza agerian

GIZARTEA ■ Tolosako Udalak «orotzapen historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko eta demokrazia, iragana kontuan hartu gabe eraiki dela salatuz» mozioa onartu berri du. Halaber, helburu berarekin ekitaldi sorta ere antolatu du Aranzadi elkartearekin batera. Esaterako, atzo inauguratu zuten *Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz*

erakusketan, Kultur Etxean. Bertan izan ziren Gerra Zibileko hainbat biktimek senitartekoak eta Jokin Bildarratz eta Andoni Iturzaeta Udaleko ordezkariak. Pako Etxeberria Aranzadi kideak hildakoak hilobietatik ateratzeko prozesuaz hitz egin zuen. 2000. urtera arte ezin zela egin adierazi zuen, eta ordutik ehunka egin dituztela. «Biktima guztiak aurkitze

ezonezkoa izango da, baina batzuk aurkituta, nolabait besteak ere aurkitzen dira», esan zuen. Hilobietan aurkitzen ditugun pertsonen eta euren familiek bizitako tragediak etorkizuna erakitzeke balioko duela gehitu zuen. Bildarratzek, bere aldetik, biktimek sentitzen dutena jendeak sentiaraztea dela ekimenaren helburua esan zuen. I.T.

Laburrak

Iurre elkartearen bertso-afaria egingo dute gaur

AISIA ■ Azken hiru urteetan bertso-afaria egin dute Iurre elkartearen urteko sasoi honetan, eta gaur lau garrenaren txanda izango da. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus ariko dira bertso-tan.

Bazkaria eta kontzertuak, gaur Otsabi elkartearen

MUSIKA ■ Otsabi auzo elkarteak antolatuta, bazkaria egingo dute gaur, eta ondoren, kontzertuak izango dira elkartearen. Bertan entseatu ohi duten Inde Kitxen eta Glaukoma Sound System ariko dira, 17:30etik aurrera.

Osoko Bilkura egingo dute datorren asteartean

GIZARTEA ■ Datorren asteartean, hilaren 26an, Ohiko Bilkura egingo dute udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean hasita. Memoriaren Egunaren inguruan ariko dira, besteak beste.

Mastektomiaren osteko egoeraz hitz egingo dute

GIZARTEA ■ Minbiziaren Aurkako Elkarteak Mastektomiaren ondorengo aukeren inguruan solasaldi egingo du datorren asteartean, hilaren 26an. Emeterio Arresen izango da 12:00etatik 13:30era, eta 943 45 77 22ra deitu beharko dute parte hartu nahi dutenek.

Gizonentzat sukaldaritzak ikastaroa antolatu dute

Gizartea ■ Berdinbide elkarteak emakume eta gizonezkoek etxeko lanak tartekatzea bultzatu nahi du ekimen honekin.

ERREDAKZIOA

Berdinbide Genero Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren kontrako Gizonezkoen Elkarteak gizonentzat zuzenduriko sukaldaritzak ikastaroa antolatu du azarorako.

Lehen aldiz antolatu dute ikastaroa, eta helburua, «gizonentzat

emakumeek etxeko lanak konpartitzea da». «Pentsatu dugu sukaldaritzako ezagupen batzuk hartzeko aukera eskaintzea, nahi duten gizonezkoek, etxeko lan horiek egiteko modua izan dezaten; esaterako, interesgarria izan daiteke bikote bizitza egitera doazen gazteentzat, etxeko lanak emakumeenak bakarrik ez direla kontzientziaz ari diren gizonentzat, edota sukalde kontuetan beren emazteen mendeko izan diren gizonentzat alargun edo apartatuentzat», azaldu dute.

Azaroko hiru astearte eta hiru ostegunetan egingo dute, 19:30etik 21:00etara. Hiru elkarte desberdinetan emango dute, Kasinon, Ero Etxean eta La Jaran, eta herriko hainbat sukaldarientzatsuk hartuko dute parte, Zuloaga Txiki jailetzeko Iñaki Etxeberriak, Fronton jailetzeko Roberto Ruiz eta Sonia Tapia sukaldariek eta Botarri jailetzeko Txemari Estebanek, hain zuzen ere.

Interesa dutenek Tolosako Kultur Etxean (943 67 03 83) eman dezakete izena azaroren 3ra arte. 10 euroko diru sarrera egin beharko da Kutzako 2101 0067 2800 1259 8603 kontu zenbakian, izen-ematearen berme gisara.

Inbertsio gehien jasotzen duen Gipuzkoako eskualdea da Tolosaldea

Gizartea ■ Gipuzkoako Foru Aldunditik inbertsioetarako diru gehien jasotzen duen eskualdea. Hain zuzen ere, 1.099,93 euro jaso ditu biztanleko azken hiru urteetan.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea da Gipuzkoako Foru Aldunditik inbertsioetarako diru gehien jasotzen duen eskualdea. Hain zuzen ere, 1.099,93 euro jaso ditu biztanleko azken hiru urteetan. Zerrendan azken postuan Debabarrena egongo litzateke, 618,60 euro biztanleko jaso dituelarik.

Pello Gonzalez Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatuak eman zituen herenegun datu horiek jakitera. Bere esanetan, «Tolosaldea da diru gehien jasotzen duen eskualdea 1.000 biztanle baino gutxiagoko herri gehien dituen delako; izan ere, herri horiek dira proportzioan biztanleko gehien jasotzen dutenak». Halaber, inbertsio batzuk azaleraren arabera lotzen direla esan zuen.

Beraz, hori kontuan hartuta, Gipuzkoan «era homogeneoan» egiten dela inbertsioen banaketa adierazi zuen.



Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatek deitu ondorengo telefonu zenbakira: 634 45 9110.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo

695 70 82 71 (Belen) telefono zenbakietara.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak opari.** Hiru hilabeteko arratoi-artzain txakurkume emea eta hiru hilabeteko hiru arratoi-ehiztari txakurkume oparitzen dituzt, eme bat eta bi ar. Interesatek deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.



Tolosako Udala osatzen duten alderdi politiko guztien ordezkariak, EB-Aralar aurkeztu zuten Tolosa 2010 Etxebizitza Plana. A. IMAZ

Udalak 74 etxebizitza tasatu eta alokairuko 56 zozketatuko ditu

Azpiegiturak » Azaroaren 1etik aurrera eman ahalko da izena udaletxean, bai tasatuetarako eta baita alokairuzkoetarako ere.

ASIER IMAZ

Tolosako Udalean ordezkariatza duten alderdi guztiek bat eginik, Ezker Batua-Aralarren hutsunearekin, Tolosa 2010 Etxebizitza

Plana aurkeztu zuten herenegun. Jokin Bildarratzek azaldu zuenez, egitasmo honen atzean, «130 etxebizitza» aurkitzen dira.

Modu batera edo bestera, guztiak babestuak izango direla azaldu zuen alkateak. Alde batetik, tasatu babestuak aurkitzen dira eta bestetik, alokairuan jarriko dituztenak. Etxebizitza horien %55a gazteei eta 70 urtetik gorakoei edo mugikortasun arazoak dituztenei zuzenduak izango dira.

Alokairuan %43,10

Denentzat etxebizitza eskubidea bermatzea ezinezkoa dela onartu zuen herenegun Bildarratzek, hala eta guztiz ere, euren «oinarriko helburua» hori lortzeko lan egitea dela azaldu zuen.

Alokairuaren bidean urrats berririk ematen ari da Tolosako Udala. Aste honetan bertan, Voith Gorrostidi eremuko 37 etxebizitza zozketatu zituen Etxebidek. 2010-13 bitartean, alokairuan beste 56

zozketatuko dituzte eta aurrera begira, bide horretatik jarraitzeko asmoa azaldu zuten hainbat udal ordezkariak.

Zerrendetan apuntatzeko

Baliabide gutxi dituzten taldeei zuzendutako 130 etxebizitza hauetan izena emateko udal txerera joan behar da azaroaren 1etik aurrera. Bertan, Etxebizitza Tasatuen Erregistroan izena eman edo eskaera orriak bete beharko dira.

» PLAZA BERRIA 2

- **Kopurua.** 16.
- **Logela kopurua.** Bakarrekoak lau eta bikoak 12.
- **Babes maila.** Tasatua.
- **Erregimena.** Jabegoa.
- **Gizarte taldea.** Denak.
- **Bukaera data.** 2012ko ekaina.
- **Zozketa.** 2011ko otsailan.

» BERAZUBI

- **Kopurua.** 39.
- **Logela kopurua.** Bakarrekoak bederatz; bi logelakoak 21 eta hirukoak bederatz.
- **Babes maila.** Tasatua.
- **Erregimena.** Jabegoa.
- **Gizarte taldea.** Denak.
- **Hasiera data.** 2011ko uztaila.
- **Bukaera data.** 2013ko uztaila.
- **Zozketa.** 2011ko irailean.

» ALONDEGIA

- **Kopurua.** 21.
- **Logela kopurua.** Bakarrekoak.
- **Babes maila.** Dotazionala.
- **Erregimena.** 15 kontzesioan (Eroslearentzat bizi den arte. Ondoren Udalak hartuko du etxebizitza eta erosleak hasieran jarritako dirua itzuliko zaio bere sendiari) eta 6 alokairuan.
- **Gizarte taldea.** 70 urtetik gorakoak eta ezinduak.
- **Bukaera data.** 2011ko otsailan.
- **Deialdia.** 2011ko lehen hiruhilekoa.

» IGARONDO

- **Kopurua.** 24.
- **Logela kopurua.** Bikoak.
- **Babes maila.** Babes ofizialekoak.
- **Erregimena.** Alokairua.
- **Gizarte taldea.** 70 urtetik gorakoak eta ezinduak.
- **Bukaera data.** 2011ko iraila.
- **Deialdia.** 2011ko lehen hiruhilekoan.

» EUSKAL HERRIA PLAZA

- **Kopurua.** 26.
- **Logela kopurua.** Bakarrekoak guztiak.
- **Babes maila.** Bost urterako.
- **Erregimena.** Alokairua.
- **Gizarte taldea.** Gazteak.
- **Hasiera data.** 2011ko maiatza.
- **Bukaera data.** 2012ko urria.
- **Deialdia.** 2012ko lehen hiruhilekoan.

» AROZTEGIETA 4

- **Kopurua.** Lau.
- **Logela kopurua.** Bakarra.
- **Babes maila.** Tasatua.
- **Erregimena.** Jabegoa.
- **Gizarte taldea.** Denak.
- **Bukaera data.** Etxebizitzak 2010eko abenduaren amaieran egongo dira prest.
- **Zozketa.** 2011ko urtarrilean.



Ikasleek bildu, Aranzadikoek sailkatu

GIZARTEA » Tolosako Casino elkarteak Mikologia jardunaldiak antolatuko ditu, bere 125. urteurrenean. Atzo eskualdeko DBH 1eko ikasleek mendi irteera egin zuten, perretxiko bila. Hauek bildutakoak Aranzadi zien-

tzia elkarteak sailkatu zituzten arratsaldean. Gaur berriz, Jardunaldien azken egunean, Tolosaldeko jabetxe batzuetako sukaldariak pintxoak banatuko dituzte 11:00etatik aurrera Trianguloan. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Bederatziarren Rolleski igoera parte hartu zutenak. J. SAIZAR

Alpino Uzturre Elkarteak X. Rolleski igoera egingo du

Hernialde» 16:00etan emango zaio hasiera Hernialdeko igoerari. Gizon eta emakume, 65 lagunetik gora aterako dira.

ERREDAKZIOA

Hamargarren urtez jarraian, Tolosako Alpino Uzturre Elkarteak Rolleski igoera antolatu du. Urtero bezala, gaur 16:00etan emango zaio hasiera igoera honi. Bi modalitateetan parte hartuko dute eta Skating erakoak, 4 kilometroko ibilbidea egiteko Belate auzotik abiatuko dira. Klasiko eran igoko direnak berriz, Hernialdera igoetzeko bidegurutzetik hasiko dira.

Dagoeneko 65 bat lagunetik eman dute izena. Gaur irteera bitartean ere izena emateko aukera

izango da. Beraz zalantzan dagoenak oraindik badu aukera.

Gehienak gizonak badira ere, emakumeak ere izango dira irteerara puntuan. Gaztetxoek ere parte hartzeko aukera dute eta 11 urtetik gorakoak izaten dira. Hauek ere bi modalitateetan parte hartzeko aukera dute.

Izena eman dutenen artean erdiak, gutxi gorabehera, gipuzkoarrak dira. Nafarroatik ere dexente datoz eta gainerakoak madrildarrak, kantabriarrak edota Arango bailaratik etorrikoak izango dira.

Behin lasterketa eginda, arropaz aldatu eta Hernialdeko elkartean merienda izango dute. Eta jarraian sari banaketa egingo dute.

Gipuzkoa eta Nafarroaren artean liga moduko bat osatuta daukate eta Hernialdeko igoera tartean dago.

» HERNIALDEKO X. ROLLESKI IGOERA

Gaur 16:00etan

- **Modalitatea.** Klasikoa eta Skating eran.
- **Irteera.** Belate auzotik edo Hernialdeko bidegurutzetik.
- **Helmuga.** Hernialdeko plazan.
- **Kilometroak.** Klasikoan, 3,2 kilometro egingo dituzte eta Skating eran 4 kilometro.

- **Ondoren.** Sari banaketa eta merienda izango dira.
- **Parte hartzaileak.** Gizon eta emakumeak. 11 urtetik gorako gazteak.
- **Nondik.** Gehiengoak gipuzkoarrak badira ere, Nafarroatik, Jaktik, Arango bailaratik, Madril edota Kantabrietatik datoz.

Laburrak

Elkarretaratzeak Udalbiltzaren alde

POLITIKA » Beste hainbat herritan bezala, Anoetan eta Tolosan gaur 12:00etan udaletxearen aurrean elkartuko dira. Elkarretaratzearekin Udalbiltzaren epaiketaren aurka daudela adieraziko dute. Aduan berriz astelehenean egingo dute elkarretaratzea. Kasu honetan, herriko plazan elkartuko dira 19:30ean. Herritar guztiei dei egiten diete bertan parte hartzera.

'Lope' eta 'Equipo A' filmak Gurea zineman ikusgai

VILLABONA » Gaur Gurea Zineman, 19:30ean eta 22:15ean, *Lope* filma eskainiko dute. Igandean haur eta helduentzako aukera izango da. Lehenengo, 17:00etan, *Equipo A* filma eskainiko dute eta 19:30ean izango da *Lope* filma ikusteko aukera. Astelehena betiko moduan ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean *Lope* filma eskainiko dute.

Odol Emaileen eguna ospatuko dute bihar

ADUNA » Gipuzkoan 25, 40 eta 50 odol emanaldi eman dituztenak bilduko dira. 12:00etan elkartuko dira eta elizan izango dute ekitaldia. Bertan opariak ere banatuko zaizkie. Ondoren bazkaria izango dute Aburuza sagardotegian. Bestalde, bi hilabetez behin azkenengo ostiral arratsaldetan Villabona-ko ambulatorioan odola ematera joateko gonbita luzatu nahi dute.

Santa Kandida Mariagatik esker oneko meza

TOLOSA » Bihar 12:00etan Santa Maria parrokiari Santa Kandida Mariagatik esker oneko meza izango da. Igandean, Benedikto XVI.ak kanonizatu zuen Santa Kandida Maria andoaindarra.

Ugarteko afarirako txartelak salgai

UGARTE » Aste kulturala antolatzen ari da festa batzordea. Azaroaren 6an Ugarten egingo den afarirako txartelak salgai daude tabernetan. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 29a da.

Azaroan Alkartasuna biltokian Karta jokoan txapelketa izango da

Anoeta » Azaroaren 10, 11 eta 12an partidak eta 13an sari banaketa izango da. Izena emateko epea jada zabalik dago.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Alkartasuna Biltokiak Karta jokoan txapelketa antolatu du. Azaroaren 10, 11 eta 12an izango da eta 13an berriz sari banaketa eta lurcha izango dira. Partidak 17:30ean hasiko dira.

Karta joko ezberdinetan parte hartzeko aukera izango da: musean, lau eta zortzi erregetara, tutean, puntuan, seiko urrean, eskoban, txintxonean... Kartez gain, domi-

noa ere izango da. Parte hartu ahal izateko izena eman beharko da eta dagoeneko Biltokian bertan aukera dago azaroaren 10a bitartean. Alkartasuna biltokiko bazkidea izan beharko da eta parte hartzaile bakoitzak bere bikotea bilatu beharko du. Parte hartzaile bakoitzak espezialitate bakarrean parte hartu ahal izango du.

Espezialitate bakoitzeko irabazleak, Tolosaldean izango den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko aukera izango du. Baina horretarako, Anoetan errolatua egon beharko du.

Antolatzaileek adierazi dute-nez, sari banaketa egunean parte hartzaile guztientzat sorpresatxo bat egongo da.



Liburutegiaren Nazioarteko Eguna bihar. HITZA

Liburuen Merkatu Txikia hilaren 25etik 29ra izango da

Anoeta » Bihar mundu osoan Liburutegi Nazioarteko Eguna dela eta liburuen merkatu txikia antolatu dute.

ERREDAKZIOA

Bihar, hilak 24, Liburutegi Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan. Hori dela eta datoren asterako Anoetan merkatu txikia antolatu dute.

Herriko liburutegien dauden bikoiztutako eta xahututako liburuak kalera aterako dituzte. Eta ekintza honekin liburuak herritarrengana gerturatzeaz gain, salgai jarriko dituzte. Merkatu Txikia antolatzaileek adierazi duteenez liburu horiekin «prezio sinboliko bat» jarriko diete. Merkatu txikia,


udaletxe aurrean izango da. Bertan, mahai bat jarriko dute era ezberdinetako liburuak.

Irakurzaletasuna bultzatuz

Hilaren 25etik 29ra izango da. Eta udaletxe aurreko mahaiaren bueltan 17:30etik 19:30era egongo dira bertan. Salgai jarriko dituzten liburuak 0,50 zentimotik hasi eta 3 euro bitarteko salneurriak izango dituzte. Gainera liburu batzuketarako gabeak ere izango dira.

Liburutegi Nazioarteko Eguna ospatzeko, merkatu txikia dela eta, liburuen mailegu zerbitzua 16:00etik 17:30era izango dela jakinarazi nahi izan dute.

Herritar guztiak animatu nahi dituzte merkatu txikira. Eta adin guztietako herritarrek liburuak irakurtzera bultzatu eta animatu nahi dituzte.



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua
20400 Tolosa

**Asteleheneetik ostegunera ogitartekoetan
2 pertsonentzako 2x1 eko eskaintza**

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, **aurretik tabernara deitu** dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, **harpidedun txartela** ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraingitze data, **2010eko abenduaren 31**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

DENAK
taberna
2x1 eskaintza

Izen - Abizenak:

Harpidedun kodea:

Erreserba eguna:



Gary Graden abesbatza zuzendariak emango du Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren aurtengo ikastaroa. HITZA

Gary Graden-en ikastaroko ikasleek kontzertua emango dute bihar Musika Eskolan

Tolosa » 100 ikasleek eman dute izena gaur eta bihar bitartean egingo den gospel musikaren inguruko ikastaroan.

ERREDAKZIOA

Tolosako Abesbatza Lehiaketa hurbiltzen ari da eta horren seinale izaten da Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatzen duen ikastaroa. Aurtengoan irakaslea Gary Graden izango da, abesbatza musikan sona handia duen zuzendaria. Hain justu, asteburu honetan eman behar duen gospel musikaren inguruko ikastaroak harrera oso ona izan du.

100 ikasleek parte hartuko dute bertan, abesbatza zuzendari eta abeslari, eta hainbat interesatu joan gabe gelditu dira leku faltagatik. Ikasle guzti horiek, Gradenek

zuzenduta, ikastaroan ikasitako abestuko dute bihar emango duten kontzertuan.

Emanaldia bihar izango da, 13:30ean Musika Eskolan eta sarrera doan izango da. Izena eman duten ikasleak Euskal Herrikoak zein kanpokoak dira. Besteak beste, Sevillatik (Espainia) ere etorriko dira. Guztira gospel estiloko bederatzia abesti landuko dituzte, horietako hiru Hegoafrikakoak.

Tolosarekin lotura

Ez da harrizkoa ikastaroak izan duen arrakasta. Gary Graden hainbatetan etorri da Tolosako Abesbatza Lehiaketara. Bertan lehenengo sariak irabazi ditu eta epaimahaikide ere izan da. Gospel musika eta oro har abesbatza musika gustuko dutenei aukera ederria emango die biharko kontzertuak musika mota horretako zuzenduko emanaldia entzuteko.

» KONTZERTUAREN EGITARAUA

Ikasleek gaur eta bihar ikastaroan landu eta gero kontzertuan abestuko dituzte bederatzia abestiak, horietako hiru Hegoafrikakoak.

- **Po'mo'ner got a home a last.** Hall Johnson-en moldaketekin.
- **Didn't my Lord deliver Daniel.** Carl Haywood-en moldaketekin.
- **I'm gonna sing till the spirit mo-**

ves in my heart. Moses Hogan.

- **My soul's been anchored in the Lord.** Moses Hogan.
- **Hear my prayer.** Moses Hogan.
- **My Lord, what a mornin'.** Harry T. Burleigh-en moldaketekin.
- **Honono, Hosanna nkosi pezulu, Mkos usubenam.** Hegoafrikako abestiak.

» SOSLAIA



Mundu osoan zehar irakasle

Gary Graden

Abesbatza zuzendaria

Estatu Batuetan jaio zen. Bertan egin zituen musikako ikasketak eta baita Stockholmeko Errege Musika Ikastegian Eric Ericsonen maisuarekin. Eric Ericsonen Ganbara-Abesbatzan parte hartu zuen, eta tenore bakarlari izan zen bertan. Egun St. Jacob's elizako koroa zuzentzen du Stockholmen. Bertako Musika Institutuan ere lan egin du, Stockholm Musikgymnasium Ganbara-Abesbatza sortuz eta zuzenduz. Abesbatza horrekin, eta St. Jacob's-eko Ganbara-Abesbatzarekin, besteak beste, Europako Sari Nagusia irabazi du. Mundu osoan zehar ibili ohi da irakasle, zuzendari eta epaimahaikide lanetan.

Iparraldeko Bertsolari Txapelketaren finalaren bila doa Miren Artetxe

Tolosa » Urkizu bizi den bertsolari hendaiarrak Gabadin finalerdia jokatu du gaur, 17:00etan, herriko gelan.


ERREDAKZIOA

Miren Artetxe bertsolariak, Tolosako Urkizu auzoan bizi den hendaiarrak, parte hartuko du gaur Gabadiko (Nafarroa Beherea) herriko gelan jokatu den Iparraldeko Bertsolari Txapelketako finalerdian. 17:00etan hasiko da bigarrena izango den finalerdia eta Artetxez gain beste bertsolari hauek parte hartuko dute: Sustrai Colina, Mixel Aire 'Xalbador II', Ximun Cazaubon, Patxi Iriart eta Joanes Etxebarria.

Lehenengo finalerdiak dagoneko erabaki ditu finalean izango diren zortzi bertsolarietako bi: Amets Arzallus eta Eneritz Zabaleta. Hauek ziurra dute lekua Donibane Lohizunen (Lapurdi) azaroaren 13an izango den finalean, lehenengo bi postuetan gelditu baitziren finalerdian.

Lau eserleku puntuazio bidez

Gabadiko gaurko finalerdian lehenengo biek ere lekua ziurra izango dute. Finalerako beste lau eserlekuak puntuazioaz erabakiko dira. Lehenengo finalerdian ondorengo puntuazioa eskuratu zuten beste lau bertsolariak: Odei Barroso, 337 puntu; Ekhi Erremundegi, 316,5 puntu; Xumai Murua, 305 puntu; eta Gillen Hiribarren, 296 puntu.



Miren Artetxe bertsolaria. R. CALVO

Herrian bertan kiropedia zerbitzua jaso ahal izango dute

Ikaztegieta » Nagore Franco eta Naiara Ortega podologoek 45 egunez behin emango dute zerbitzua.

ERREDAKZIOA

Ikaztegieta Udalak zerbitzu berri bat jasotzeko aukera zabalduko dela jakinarazi du. Alegiako jubila-tuenetara joaten diren Nagore Franco eta Naiara Ortega podologoak hilabete eta erdiz behin, 45 egunez behin, joango dira Ikaztegieta. Hainbat zerbitzu emango dituzte: kiropedia zerbitzua, hau da, oin azkazzalen mozketa, kailuak kendu eta oin osoaren mantentze

erokorra; silikona jarri kailuak babesteko eta barne-zolak.

Zerbitzua kiroldegian dagoen sendagilearen gelan izango da eta modu horretara gela horri beste erabilera bat emango zaiola adierazi du Udalak.

Eskaeria egiteko, udaletxean

Lehenengo bisita hilaren 27an egingo dute Nagore Franco eta Naiara Ortega podologoek. Zerbitzua jaso nahi dutenak udaletxera deitu behar dute, 943 65 33 29 telefono zenbakira. Podologoarentzat ordua eskatu nahi dela adierazi behar da. Podologoak pertsona bakoitzarekin 20 minutuko saioa egingo du eta 18 euro ordaindu behar da kiropedia zerbitzua.



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA asteartetik ostiralera jasoko duzue azaroaren 5etik aurrera, ostiraletan, hala ere, GIPUZKOAKO HITZA ere jasoko duzue. R. CALVO

HITZA eta 'Berria' egunkariak etorkizunari begira jarri dira

Komunikabideak » Krisiak berak eta komunikabideen ereduaren beraren krisiak hausnarketa bat egitera behartu gaitu.

ERREDAKZIOA

Ekonomia krisia ez ezik, jakina da komunikabideak eredu krisi bat pairatzen ari direla, batik bat internet eta teknologia berrien ondoriozko ohitura aldaketek eraginda. Egoera oso zaila bizi dute euskarazko komunikabideek, 'Berria'

eta HITZAK ere bai, eta headuraz TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

Baina gure esku ere bazegoen krisia aukera gisa ulertu eta egoera ondo baliatzea.

Erreferentzialak izateko beharra

Egoera honen aurrean, txikitasun eta ahuldade mezuak gainditu eta euskal hedabideak erreferentzialak izateko 'Berria' eta HITZAK egin dugun gogoeta kontuan hartzea da.

Indarrak bildu eta proiektu par-

tekatuen bidez hedabide zabalduen nagusigoarekin lehiatzeko bideak irekiko ditugu.

Euskarazko hedabideak etorkizunera begira jartzea eta orain arte bezala, euskararen normalizazioan betetzen duten papera ezinbestekoa iruditzen zaigu; zabalkunde handiagoa izango duten proiektuak garatuz, diru sarrerak ugartuz eta puntako kalitateko informazio eskainiz; bertako informazio, informazio nazionaleraino.

Dibertsifikazioaren bidez, gero eta jende gehiagorengana iristeko izan behar da helburua, papereko

eskaintza indartuz eta bestelako euskarrietara ahalik eta gehien zabalduz, ahal den neurrian.

Aldaketak paperean zein interneten

Interneten zein paperean urrats berriak ematera goaz 'Berria' eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.

Orain arteko bideak, ekarpen handia egin dio euskararen normalizazioari eta euren lekua mantentzea eta eskaintza hobetzea izan behar da guztion helburua.

Horretarako, orain arte bidela-

gun izan gaituzten harpidedunen eta irakurleen atxikimendua behar dute bi egunkariak, eta noski, harpidedun eta iragarle berriak gehitzea.

Egoera zaila da eta inoiz baino gehiago, urrats berriak egiteko, harpidedun berriak behar ditugu. Eta horretarako, dibertsifikazioaren bidez, jende gehiagorengana iristeko apustua egin dugu.

Pausoak

Horiek horrela, hausnarketa prozesu luze eta sakona egin eta gero hauek izango dira TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-k izango dituen aldaketak.

Azaroaren 5ean ekingo diogu aro berriari. Azaroaren 5ean bertan produktu berri bat izango duzu eskuragai, harpidedun, GIPUZKOAKO HITZA. Lurraldeko egunkaria izango da eta honekin batera noski, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA jasoko duzue ostiral horretan. Ez ordea larunbatean, izan ere, azaroaren 5tik aurrera TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA asteartetik ostiralera jasoko duzue etxean. Ostiraletan, esan bezala, GIPUZKOAKO HITZA ere jasoko duzuelarik.

Asteburuari begira, hala ere, webgunea elikatzen jarraituko dugu, eta beraz, larunbatetan, www.tolosaldekohitza.info webgunean izango duzue Leitzaldeko zein Tolosaldeko albiste eta ekitaldi garrantzitsuenen inguruko informazioa.

Astekaria

GIPUZKOAKO HITZA-ri dagokionez 16 orrialde izango ditu, astekaria izango da, ostiraletan argitaratuko da eta 'Berria' eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN batera banatuko da.

Helburua: elkarlanari esker informazio osatuagoa ematea

Proiektu berria abiaraztera goaz beraz, eta honekin batera sarean indartuko dugu informazio jarraitua eginaz, komunitate berri bat sortuz... honen berri, hala ere, aurrerago emango diezuegu.

U Urteurrena

Lehenengo urteurrena
**JUAN REZOLA
BARANDIARAN**

2009ko urriaren 12an hil zen, 90 urterekin.
-Goian bego-

Bere sendiak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela BIHARIGANDEA, eguerdiko HAMABI ETA ERDIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan egingo den urteurrenko mezara. Aldez aurretik, mila esker.



ORDIZIA
2010eko
urriaren 23a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Laburrak

Rekondo eta Arrospide Bizkaian lehiatuko dira

AIZKORA ● IV. Bizkaiko Aizkolari irekia jokatu da bihar Euban (Bizkaia). 12:00etan, pilotalekuan hasiko da ikuskizuna. Bi taldetan banatuta, sei bikote ariko dira lehia, eta tartean eskualdekoak izango dira. A taldea Olasagasti-Garita, Larretxea-Aldape eta Rekondo-Atutxa II.ak osatuko dute; B taldea berriz, Nazabal-Irazabal, Lpz. Azpilikueta-Mendieta eta Arrospide-Txikonak. Iaz Jon Rekondo eta Aitzol Atutxa izan ziren garaile.

Ohiko Osoko Bilkura egingo dute asteartean

IBARRA ● Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura deitu du datorren asteartean. 09:00etan hasiko den bilkuran, besteak beste gai zerrenda honako hauek osatuko dute: Ibarrrako Udaletxeko Etxebizitzen irisgarritasunari buruzko araudiaren onarpena; Ibarrrako Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal araudiaren onarpena; Ibarrrako Udaletxeko Bake epaile titular eta ordezkoren izendatzea; Leaburu Parking-ean OTA zerbitzua (eremu orlegi bezala) zabaltzea; 2011. arikerarako Udal Tributuak arautzen dituzten Ordenantza Fiskalen aldatzea...

Lauburuk Durango izango du aurkari bihar

IBARRA ● Lauburukoek Durangora bidaiatuko dute gaur, beste partidat bat jokatzeko. Oraingo honetan, Sasikoa FS taldearekin dute hitzordua, 19:00etan. Lidergoa mantentzen saiatuko da jardunaldi honetan ere, eskualdeko taldea.

Maria Cristina hotelean, Alurren emanaldia bihar

IBARRA ● Alurr Dantza Taldea Donostiako Maria Cristina hotelean ariko da bihar 21:00etan. Bertan, Les Grandes Tables du Monde sukaldarien elkarateak urteko biltzarrara ospatuko du. Alurr taldeko 12 dantzarik 25 minutuko emanaldia egingo dute. Agurra dantzatzuko diete Les Grandes Tables du Monde sukaldarien elkarteko kideei, eta ondoren hainbat koreografia berri, euskal dantzetan oinarrituta (Zuberoako dantzak, Gipuzkoanoa, banako...).

Lau t'ertiko txapelketako lau partida jokoan

PILOTA ● EPElen Lau t'erdiko pilota txapelketan hitzorduak dituzte asteburu honetan, eskualdeko lau pilotarik. Hasteko, gaur 16:45ean Iruñeko Labrit pilotalekuan hasiko den jaialdian, Patxi Ruiz eta Mikel Olaetxearen arteko partida ikusi ahal izango da. Hamabost minutu beranduago hasiko da Gernikako Santanope frontoiko jaialdia. Bertan, Berasaluze VIII.ak Olazabal izango du aurkari. Eibarko Astelehen berriz, txapelketa bereko beste bi partida jokatuko dira bihar 17:00etatik aurrera. Alde batetik, Zubieta eta Urrutikoetxearen artekoa, eta bestetik, Abel Barriola eta Ekaitz Saralegirena.

Astelehenetan jasoko dute tutorearen bisita KZ gunean

BERASTEGI ● Hilaren 8an, 15an, 22an eta 29an arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara jasoko dute irakaslearen bisita Berastegiko KZ gunean.



Duela bi urte, azoka berezia egin zuten Belauntzan, bertako produktuak salgai jarriaz. NEREA URBIZU

Bertako produktuak salgai bihar, Merkatu Txikian

Belauntza » Herritarrek hainbat postu jarriko dituzte; bigarren eskuko gauzak, artisau lanak eta abereak ere izango dira.

ERREDAKZIOA

Belauntzako Udalak eta Agenda 21ek elkarlanean antolatuta, Merkatu Txikia egingo dute igande honetan. 10:30ean zabalduko dituzte ateak eta 14:00ak arte egongo da irekita.

Nekazal eta eskulangintzako produktuak, nahiz abereak egongo dira ikusgai bertan. Antolatzaileen esanetan «herrian egiten dena ezagutzera ematea da asmoa». Duela bi urte antzeko ekimen bat

egin zuten, azoka berezi batekin, baina oraingoan zabalagoa izango da. Aipatu bezala, hasteko, herriko baseritarrek garaiko produktuak eramango dituzte. Bestetik artisauek edo eskulanak egiten dituztenek beraien lanak erakutsiko dituzte. Azkenik baserriko abereak egongo dira ikusgai: zaldiak, zekorrak, antxumeak, hegaztiak...

Antolatzaileek azaldukoaren arabera, herritarrek luzatutako zenbait proposamenen ondotik erabaki dute Merkatu Txikia egitea. Hala, postuak jartzeko interesa zutenekin bilkurak egin dituzte, eta azoka nolako izango den erabaki. Iñaki Otamendi, Kultur dinamizatzailearen esanetan, oraingoan azoka, belauntzarrek soilik ekarritako produktuekin osatzea

erabaki dugu. Ondorioz, postu gehiegi ez dira egingo, «baina herrikoa erakustea eta indartzea zen gure asmoa».

Bigarren eskuko produktuak ere salgai

Merkatu txikiaren baitan bigarren eskuko azoka ere egingo da. Etxean erabilitako liburuak, diskoak, kirol materiala, arropa, haurren jolasak... gaur egun erabilpenik eman gabe dituztenek salgai jarri ahal izango dituzte bihar. Herritarrek bihar goizean bertan eraman ahal izango dituzte produktuak, eta salgai jarri. Antolatzaileek egingo dute bitartekari lana. Honez gain, Emaus elkarrekin utzitako gauzak ere eskuratu ahal izango dira.

Etzi hasiko dituzte Ikastolako eskailerak konpontzeko lanak

Ibarra » Hilabetez itxita egongo da eskaileretatik igotzeko bidea; irisgarritasuna hobetzea dute helburu lanek.

ERREDAKZIOA

Ibarrrako Udalak etzi ekingo die Uzturpe ikastola alderako eskaileraren konponketa lanei, bertarako irisgarritasuna hobetu eta, ibilgailu pribatuaren ordez, ikasleak eta helduak bertatik joan-etorria egitera bultzatzeko asmoz. Bide konponketako lan hauek 70.000 euro inguruko aurrekontua dute, eta Udalak mugikortasun iraunkorra sustatzeko duen borondatearen ondorio dira.

Ikastolako eskailera hauen konponketak eta inguruneak egokitzeko gune honetako pasabidea hilaite inguruan ixtea ekarriko du, «hori ezinbestekoa baita langileek euren lana gauzatu ahal izateko». Hori dela eta, Ibarrrako Udalak barkamena eskatzen die neurri honek erasango dien guztiei, eta denbora honetan Ikastolaraino iristen den beste hautabidea erabiltzea gomendatzen die.

Zorua nahiz honen inguruak erabat konpontzea da aipatutako lan hauen xedea. Era honetan, urteen joanean bidean sortutako kalteak konpontzeko dira, hondatutako hiri-altzariak ordezkatu, eta bidetaren inguruko lurra atonduko dira.

Bidearen egungo erabiltzaileen-

tzat pasabideak hobetzea eta Ikastolara oinez joateko erraztasun handiagoa eskaintzea da Udalak jarduketara honekin lortu nahi duen helburua. Halaber, udal arduradunen lana gauzatu da orain arte bide hau erabiltzen ez zuten ikasleek eta helduek hemendik aurrera erabiltzea eta ibilgailu pribatua aparkatuta uzteko erabakia hartzea.

Modu honetan sustatzen eta bultzatzen dira airearen eta soinuaren kutsadura murriztera bideratutako neurriak, Ibarrrako Udalak sustatu duen Mugikortasun Iraunkorraren Planean jasota dagoen bezala, betiere herritarren artean ingurumenarekin konprometitutako ohiturak bultzatu eta udalerrira printzipio hauetara egokitzearen aldera.

MUNDUKO SUKALDARITZA →

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BRETAÏNIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriarekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA
urriaren 29a baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea: **FAGOR**
www.fagor.com

AUKERAZ EZAZUL
BIZI EUSKARAZ
berria



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegietta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

- **Tolosa.** Tor eta Eriz magoen ikuskizunak 17:30ean eta 19:00etan Zerkausan.
- **Tolosa.** Teatro Plus taldearen *La leyenda del Farol* ikuskizuna, 18:00etan Topic-en.

Azoka

- **Tolosa.** Larunbateroko azokan azkeneko izango da, Antton Arroniz, piperrak erretzen.
- **Tolosa.** Tolosaldeko ostalariak perretxioekin egindako pintxoak prestatuko dituzte, goizean zehar eta Trianguloan ikasleek jasotako perretxioak erakutsiko dituzte, Mikologia Jardunaldien barruan.

Deialdiak

- **Villabona.** Azaroaren 27an Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatuta, Villabonako Euskal Herrian Euskaraz horretarako lan taldea osatu nahian dabil.

Kirola

- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, Hernialdeko Rolleski lgoera, 16:00etan hasita.

Musika

- **Tolosa.** Las culebras eta Surfín Kaos, Bonberenean, 22:30ean.
- **Tolosa.** Erkki Pohjolaren ome-nezko Et Incarnatus orkestraren eta hainbat abesbatzaren kontzertua 20:00etan Leidor aretoan.
- **Tolosa.** Inde Kitxen eta Glaukoma Sound System, Otsabi elkarte-an, 17:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunak.



Landaturikoa saldu dute ikasleek

TOLOSA • Samaniero eskolan azoka berezia egin dute, urtero legez garai honetan. Eskolan baratzea lantzen dute Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek astean behin. Baratzean bildutakoa saltzen jarri zuten atzo 6.

mailako zenbait ikaslek, artzain-andrez jantzita. Produktu ekologikoak saldu zituzten eta hainbat familia izan ziren bertan baratzkiak erosten: patatak, brokolia, porruak, kalabaza... I. GARCIA

A Agurrak



Zorionak!

June Lurao (Tolosa).
Muxu pila bat aita, ama eta Maddik. Ondo pasa.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>